

**HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ORDENANTZA****1. artikulua.— Xedea**

Ordenantza honen xedea herritarrek, banaka zein taldeka, udal-kudeaketan parte hartzeko duten eskubidearen erabilera arautzea da, eta informazioa emateko eta parte hartzeko moduak, baliabideak eta prozedurak ezarri dira eskubide horretaz baliabideak daitezzen.

2. artikulua.— Aplikazio-esparrua

1. Arautegi hau Areatzako Udalean aplikatuko da.
2. Arautzen diren eskubideak Areatzako herritar guztienak eta Areatzako udalerrian helbide soziala duten erakundeak dira.

3. artikulua.— Printzipio orokorrak

1. Udalak, bere politikak diseinatzean eta zerbitzuak kudeatzean, herritarrek, banaka zein taldeka, gai publikoetan parte hartu eta lagun dezatela sustatu behar du.
2. Udalbatzak bere kabuz antolatzeke duen eskumenaz baliatzean ezartzen dituen parte hartzeko moduek, baliabideek eta prozedurek, ezin izango diete inola ere kalterik egin eskumeneko udal organoei dagozkien erabakitzeke eskudantziei, aplikatzeke den arautegiak ezarritako baldintzen arabera.

4. artikulua.— Herritarren eskubideak

1. Areatzako herritar guztiek udal kudeaketan zuzenean parte hartzeko eskubidea dute, banaka zein taldeka, elkarteetan eta herritarren beste edozein erakunderen bitartez.
2. Areatzako herritarrek, 2.2. artikuluan adierazitako erakundeek eta Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Tokiko Araubideari buruzko legedi orokorrean aitortutakoek, eskubide hauek dituzte, ordenantza honetan ezarritako baldintzen arabera:
 - a) Administrazio-jarduera gardena izateko eta hari buruzko informazioa izateko.
 - b) Entzunaldi publikoa izateko.
 - c) Eskatzeko.
 - d) Herri-ekimenerako.
 - e) Osoko bilkurara joateko, eta bertan mozioak, eskeak eta galderak aurkezteko.
 - f) Herri-kontsultarako.

5. artikulua.— Bertaratze aktiborako eskubidea

1. Udalak, aurreko artikuluan ezarritakoaz gain, bere jarduerari, eta udal-planekin eta herritarrek bertako bizitzan duten partaidetzarekin zerikusia duten proiektuak eta jarduerak kudeatzen dituzten elkarte eta erakundeek egindako jarduerari buruzko ahalik eta informaziorik zabalena emango du.
2. Herritar guztiek lege orokorrak administrazio publikoen eta administrazio-prozedura erkidearen araubide juridikoari buruz ematen dizkien eskubideak dituzte udalarekin duten harremanean. Zehazki, indarreko xedapenek, egiteko proposatzen diren proiektu, jarduera edo eskaerei ezartzen dizkieten baldintza juridiko edo teknikoei buruzko informazioa eta orientazioa eskuratzeko eskubidea erabiltzeke dagokionez, herritarrek eskubide hauek izango dituzte:
 - a) Udalera posta elektronikoz jotzeko, bertan egokitzeke jotzen duten auzia azaltzeko.
 - b) Egindako eskaerari arazoizko epe batean arazoitutako erantzuna jasotzeko. Herritarrei posta elektronikoz emandako erantzuna ez da loteslea izango, arautegiak kontrakoa ezarri ezean. Hala ere, ezingo da inolako jokabiderik zehatu, eta ez da erantzukizunik egongo, jokabide horrek udalak berak bide honetatik emandako arautegiaren arazoizko interpretazio bati jarraituz izan badu.

**6. artikulua.— Osoko bilkuran proposamenak aurkezteko eskubidea**

1. Herritar guztiek, herritarren interes kolektiboak adierazten dituen elkarte eta erakundeek, eta udalean ordezkariak dituzten edo ez dituzten alderdi politiko guztiek beren intereseko udal-gaiei buruzko proposamenak aurkezteko eskubidea dute.

2. Proposamenak idatziz aurkeztuko dira udalaren Erregistro Orokorrean, eta bate-tik, azalpenezko edo justifikatzeko zati bat izango dute, eta bestetik, hartzeko proposa-men bat.

Talde politiko guztien bozeramaileei proposamen horren kopia bidaliko zaie.

3. Alkateak proposamenen izapidetzea ukatu ahalko du, baina bere erabakiaren arazoak eman beharko ditu eta aurkeztu duenari jakinarazi beharko dio.

4. Proposamena izapidetzeko onartutakoan, dagokion osoko bilkuraren gai-zerren-dan barne hartuko da, eta proposatu duenari entzunaldia emango diote, ordezkari bakar baten bidez eta Alkateak adierazten duen denboran, proposamenaren eduki eta jato-riari buruz duen iritzia ahoz azal dezan, proposamena eztabaidatu eta bozkatu aurretik. Udaltzako kideek bakarrik eztabaida eta bozka dezakete, eta bertaratutako jendeak eta proposamena egin duten pertsonak ezin dute parte hartu. Osoko bilkuraren funtzio-namendu-arau orokorrak aplikatuko dira.

7. artikulua.— Galderak eta eskeak egiteko eskubidea

1. Herritarrek eta udal erakundeek galderak eta eskeak egin diezazkiokete udalari. Galde-eske horiek gainerako udal taldeei ere bidali beharko dizkiete.

2. Herritarren galde-eskeak idatziz aurkeztuko dira udalaren Erregistro Orokorrean.

3. Ez dira onartuko norberaren galde-eskeak edo galde-eske adeigabeak.

4. Herritarren galderak zuzentzen zaizkion pertsonak erantzungo ditu.

8. artikulua.— Edukia

1. Udalak, Alkatearen bidez, eta Euskadiko Tokiko Erakundearen Legearen 2/2016 Legeko 80., 81. eta 82. artikuluetan jasotakoaren arabera, herri-kontsultak, sektorekoak eta herritarren kontsultak egin ahal izango ditu, aipatutako artikuluen baldintzen eta ezar-penen arabera.

2. Aurrekoa alde batera utzita, interes publikoaren arabera gomendagarria bada, udalak herritarren iritzia bildu ahalko du, inkesten bidez, iritzi-inkestak eginez, gaiak jen-durrean azalduz, teknologia berriak erabiliz edo herritarren iritzia jakiteko balio duen beste edozein baliabideren bidez.

9. artikulua.— Udal aurrekontuak egiten parte hartzeko eskubidea

1. Herritar guztiek, herritarren interes kolektiboak adierazten dituzten elkarte eta erakundeek eta udal-erakundearen ordezkariak dituzten edo ez dituzten alderdi politiko guztiek udal aurrekontuak egiten parte hartzeko eskubidea dute; baita aurrekontu oro-korra onartzeko ezarritako informazio, erreklamazio, publizitate eta baliabideei buruzko izapideak aplikatzekoak diren aurrekontuak aldatzeko ere.

2. Udalak, aipatutako eskubide hori bermatzeko helburuarekin:

— Jardueren egutegia eta aurrekontuak egiteko parte hartzeko beharrezkoa den in-formazioa argitaratuko du bere web-orrian.

— Azaltzeko hitzaldi bat egingo du.

— Parte hartzeko bideak eskainiko ditu, hala nola helbide elektronikoa, postontzi tra-dizionala, udal erregistroan zuzenean, eta teknologiara egokitzuz joango dira, era-biltzaileentzat eskuragarriagoa izan dadin.

Azaldutakoa gorabehera, udalak beste modu batzuk aztertu ahalko ditu prozesuan parte hartzeko, haren jarraipena egiteko eta kontrolatzeko, erabakitze organoak eta esparruak ezartzeko eta gauzatze maila aztertze.



3. Era berean, aurretik aipatutako eskubidea erabat gauzatzea lortzeko, nahikoa baliabide tekniko eta ekonomikoak bermatuko dira.

10. artikulua.— Parte hartzeko batzordeak

1. Udaltzatzen egiturak dira, informazioa emateko, kontsultak egiteko, lankidetzan aritzeko, deliberazioak egiteko eta aholkatzeko. Proposamenak eta iradokizunak egiteko gai dira, eta haren barruan daude gizarte-eragileak, udaleko erakundeak eta elkarteak. Horien bidez, auzokoen elkarteek bertako interes publikoko gaien kudeaketan parte har dezakete:

- a) Beren esparru materialeko berezko gaiei buruzko ekimenak, iradokizunak eta proposamenak aurkeztea, dagokion arloak azter ditzan.
 - b) Beren jarduera-sektoreko gaiarekin zerikusia duten azterlanak, programak eta proiektuak egiten laguntzea eta aholkatzea.
 - c) Zuzeneko partaidetza sustatzea eragindako edo interesa duten erakunde eta pertsonen udal-jardueraren arlo bakoitzaren kudeaketan.
 - d) Elkartegintza eta lankidetzak eta koordinazioa sustatzea batzordearen xede-esparruan aritzen diren elkarte publiko nahiz pribatuen artean.
 - e) Batzordearen jardueraren esparruan egiten diren jardueri buruz aholkatzea udalari, udalak aurkezten dituen gaiak eztabaidatuz eta baloratuz, bereziki urteko programen informazioa, jarraipena eta ebaluazioa; eta proposamenak eginez.
 - f) Sektorerekin lotutako azterlanak, txostenak eta jarduerak sustatzea.
 - g) Udaleko politika eta jarduera integralak aplikatu daitezela sustatzea, pertsonen eskubideak defendatzeko.
2. Eskumenez sortzen da.
 3. Batzordeak arintasun eta eraginkortasun printzipioen arabera jokatu du.

11. artikulua.— Osaera

Batzorde bakoitzaren osaerak dagokion sektorearen berezitasunak kontuan hartu beharko ditu, eta berdintasunaren arloan indarreko legedian ezarritako gizonen eta emakumeen arteko proportzioa bermatu beharko da.

12. artikulua.— Eraketa eta zerrendaketa

1. Herritarren parte hartzeko batzordeen bidez kudeatu ahalko da. Horien artean daude:

- 1) Jai Batzordea.
- 2) Euskara Batzordea.

2. Gizarte-erakundeak eta batzordeak edo parte hartzeko beste edozein egitura sortzea eskatu ahalko diote udalari.

13. artikulua.— Ordenantzak eta arautegiak egiteko prozeduran parte hartzea

1. Ordenantza-proiektua edo arautegia egin aurretik, puntu hauek nahitaez jaso beharko dituen txosten bat argitaratuko da udalaren webgunean eta egokitzen jotzen dituzten bestelako baliabideren bidez (kartelak, Areatza Lantzen, jakinarazpen pertsonalizatuak...):

- a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- b) Onartzeko beharra eta aukera.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Arautegian edo arautegiz kanpo dauden beste aukera batzuk.

Herritarrek eta udal elkarteek edo erakundeek beren iritzia emateko aukera izango dute, webgunean argitaratzen denetik 15 eguneko epea hain zuzen.

2. Aurrekoa gorabehera, arauak pertsonen legezko eskubide eta interesetan eragiten badu, proiektuaren testu bat argitaratuko da udalaren web-orrian eta arauak eragiten



dituen herritarrei entzuteko egokitzat jotzen diren beste hedabide batzuetan, beste pertsona edo erakunde batzuek egin ditzaketen beste ekarpen batzuk jasotzeko. Horretarako, beharrezko agiriak jarri beharko dira haien eskura, eta 15 egun naturaleko epea izango dute webgunean argitaratzen direnetik.

Aurretik egindako kontsulta publikoak barne-administrazioako eraginak bakarrik izango ditu, arau-proiektuak idazten prestatzeko. Ez zaie erantzun beharko kontsultaren hartzaileek ematen dituzten iritziei. Hala ere, eskumenek arloak kontsultaren emaitza erantsi beharko du espedientean, parte-hartzaile kopurua, emandako iritzi kopurua eta emandako iritzi nagusien laburpena adieraziz.

3. Lehen puntuan aurreikusitako izapidea ez da beharko proposamenak jarduera ekonomikoan eragin esanguratsurik ez badu, hartzaileei betebeharrak garrantzitsurik ez badie ezartzen edo gai baten alderdi partzialak arautzen baditu.

4. Artikulu honen 1. eta 2. puntuetan ezarritako izapideak ez dira beharko:
- a) Aurrekontuei buruzko arauak badira.
 - b) Udalaren antolaketa-arauak badira.
 - c) Horrela justifikatzen duten interes publikoko arrazoi larriak badaude.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu eta 15 egunera sartuko da indarrean.